

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5176

AGINDUA, 2019ko urriaren 29koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2020ko laguntzetarako deialdia egiten duena.

2007ko azaroaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (218. zenbakia) argitaratu zen urriaren 23ko 185/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzei buruzkoa. Azaroaren 24ko 608/2009 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori, eta haren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan, merkatuetan, marketinean eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntza sustatzeko laguntzen esparrua ezartzea eta arautzea.

Dekretu horren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, urtero, laguntza-eskabideak aurkezteko epea zabalduko da, sailburuaren agindu baten bidez. Bestalde, deialdiko aginduan honako hauek adierazi behar dira: aurrekontu-kreditu erabilgarria; deialdiko beka-kopurua eta bakoitzaren diru-zenbatekoa; ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko estrategikotzat eta lehentasunezkoztat jotzen diren I+G+B-ko proiektuen zerrenda jasotzen duen eranskina; eta, deialdirako normalizatutako eskabide-eredua jasotzen duen eranskina. Deialdi honetan, gastu-espedientea alde aurretik izapidetzea erabaki da, eta, hortaz, deialdiko laguntzak bideratzeko, beharrezkoa izango da kreditu egoki eta nahikoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020ko aurrekontu orokorretan.

Deialdi hau ebazterakoan, aintzat hartuko dira administrazio publikoen dirulaguntza jarduera arautzen duten publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak, betiere honako arau hauetan xedatutakoari jarraituz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzako manuak; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenak. Gainera, diru-baliabide erabilgarriak agindu honetan ezarritako irizpideen arabera aplikatuko dira.

Hori dela bide, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdia.

1.– 2020ko ekitaldian, hamabi beka emango dira prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileentzako programaren barruan (doktoratu aurrekoak), eta hamar beka, berriz, teknologoak prestatzeko programaren barruan.

2.– Agindu honetako I. eranskinean jasota dago Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren iritzi 2020ko ekitaldiko deialdian bi laguntza-programa horietarako estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+B-ko proiektuen zerrenda.

Bigarrena.– Iraupena.

Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileentzako laguntzak badira, kontratuak urtebete iraungo du, eta urtebeteko luzapenak egin daitezke. Ezein kasutan, hasierako kontratuan metatutako iraupena eta luzapenen iraupena ezingo da lau urte baino luzeagoa izan.

Teknologoak prestatzeko laguntzei dagokienez, nahiz eta dekretuan xedatzen den laguntzek ondoz ondoko bi urteko iraupena edo urtebetekoa izan dezaketela, kasu honetan, emango diren laguntza guztiek bi urteko iraupena izango dute.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

2020ko ekitaldian, hilabetekoa izango da urriaren 23ko 185/2007 Dekretuak araututako laguntzen eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari helaraziko zaizkio laguntza-eskabideak.

2.– Eskabideak modu presentzian zein elektronikoa aurkeztu ahal izango dira:

– Modu presentziala: eskabideak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat.

– Modu elektronikoa: eskabideak euskadi.eus egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira: http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/

Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, presentziala edo elektronikoa erabiltzeak, ez du esan nahi aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabili behar denik; nahi den bidea erabili daiteke edozein unetan.

3.– Eskabideak, modu elektronikoa zein presentzian, eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira. http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/ web-helbidean dago eskuragarri eredu hori, eta agindu honen II. eranskin gisa argitaratu da. Eskabidearekin batera, II. eranskinean zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

4.– Eskaria egin ondoko izapideak, bide elektronikoa bitartez, honako helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> gunean.

5.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena ematen du Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak zuzenean eskura ditzan haren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzen duten agiriak, NAN/IFK nortasuna eta beste edozein administrazio publikok egindako agiri guztiak. Hala ere, eskatzaileak baimen hori berariaz uka dezake, baina, kasu horretan, adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu.

6.– Interesdunek edozein programatan eskatu ahal izango dute laguntza, eta I. eranskinean jasotako guztien artean 3na proiektu aukeratu ditzakete gehienez.

2019ko azaroaren 11, astelehena

Proiektuen adierazitako lehentasun-ordena loteslea izango da laguntzak esleitzeko orduan.

Bosgarrena.– Diru-zuzkidura.

1.– Laguntza horiek finantzatzeko aurrekontua, gehienez ere, 1.777.200,00 eurokoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzudan. Zenbateko horretatik, 355.050,00 euro 2020rako ordainketa-kredituei dagozkie, eta gainerako 1.422.150,00 euroak, 2021etik 2024ra bitarteko ekitaldietarako konpromiso-kredituei.

2.– Gehieneko aurrekontu orokor horretan, Gizarte Segurantzari atxikitzearen ondoriozko gastua dago sartuta (urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan xedatuta) eta 313.200,00 euro dira; horietatik, 53.550,00 euro 2020rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 259.650,00 euro, 2021etik 2024ra bitarteko ekitaldietarako konpromiso-kredituei.

Seigarrena.– Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak.

Ezin izango dira deialdi honetako prestakuntza-laguntzen onuradun izan honako arau hauetan jasotako egoeretakoren batean dauden pertsonak: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. Artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua.

Gainera, 2020ko deialdian, laguntza-eskatzaileek egiaztatuta izan behar dituzte betekizun hauek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako:

a) Europar Batasuneko herritar izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritar.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea. Ondorio horietarako, eskatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez. Dena dela, onartu egingo dira, eskakizun hori bete ez arren inoiz EAEn erroldaturik egon baina ikasketak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egin dituzten eskatzaileak.

c) Ikertzaileak prestatzeko laguntzen programan (doktoratu aurreko kontratutak), I. eranskinean proiektu bakoitzerako zehaztutako titulazioetako bat edukitzea, edo proiektuaren xedearen arabera antzekoedukiaduen bestetitulazioen bat, betiere urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 5.1.c) artikulua ezartzen duen titulazio-eskakizunen esparru orokorraren barruan: goi-mailako unibertsitate-titulua, edota doktoregoan onartzea eskatzeko eskakizunak betetzea (Doktoretza-ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuaren 6. artikulua arabera). Eranskinean proiektu bakoitzerako adierazitako titulazioez beste bat onartzen bada, hautaketa-batzordeak justifikatu beharko du haren onarpena titulazioaren eta proiektuaren edukiak oinarritzat hartuta.

d) Teknologoak prestatzeko beka-programan, I. eranskinean proiektu bakoitzerako zehaztutako titulazioetako bat edukitzea, edo proiektuaren xedearen arabera antzeko edukia duen beste titulazioen bat, betiere urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 5.1.c) artikulua ezartzen duen titulazio-eskakizunen esparru orokorraren barruan: goi- edo erdi-mailako unibertsitate-titulua, goi-mailako heziketa-zikloa edota bigarren zikloko lanbide-heziketa (II. LH). Eranskinean proiektu bakoitzerako adierazitako titulazioez beste bat onartzen bada, hautaketa-batzordeak justifikatu beharko du haren onarpena titulazioaren eta proiektuaren edukiak oinarritzat hartuta.

e) Titulu hori lortzeko ikasketak amaitu behar izan dituzte 2015eko ekainean edo geroago.

f) Teknologoak prestatzeko laguntzetarako, ez da onartuko lehendik antzeko bekarik lortu duenik, hau da, nekazaritzako, arrantzako eta elikadurako eskumena duen sailak emandako antzeko bekarik.

g) Ez dute izan behar dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barnean izanik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatko seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

Zazpigarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileak (doktorego aurreko beka):

a) Ikertzaileek jasoko duten urteko zenbateko gordina 19.000,00 euro izango da lehen urtean, 20.000.000,00 euro bigarrenean, 22.000,00 euro hirugarrenean eta 28.000,00 euro laugarrenean.

b) Atxikipen-organo, -zentro edo -erakundeek jasoko dute, aldezturik, ikertzaileen ordainsari gordina eta Gizarte Segurantzaren kuota, urtean urteko kotizazio- eta hobari-tasei dagozkienak.

c) Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat izango dute; izan ere, laguntza bakoitzeko, gehienez 2.000 euro gehiago eskura dezakete urteko, gastuak ordaintzeko. Aldezturik justifikatuta, doktorego-ikastaroetan matrikulatzeko, zientzia-kongresuetan edo lan-saioetan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko, eta abarretarako erabiliko dute diru-kopuru hori.

2.– Teknologoak.

Teknologoak prestatzeko laguntzek 14.000 euroko dotazio ekonomikoa izango dute urteko, bai eta Gizarte Segurantzaren kuota ere. Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat ere jaso ahalko dute (laguntza bakoitzeko, gehienez, 1.000 euro gehiago eskuratu ahalko dituzte urtean), aldezturik justifikatuta, kongresu zientifikoetan edo lansaioetan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko eta abarretarako gastuak ordaintzeko. Dirulaguntza honi urtean sobera geratzen zaion zenbatekoa ondorengoari gehi dakiok.

Zortzigarrena.– Ez-betetzeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzei buruzko urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 20. artikuluan baldintzak ez betetzeari buruz xedatutakoa aplikatzeaz gainera, jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, baldin eta laguntzaren onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 53.1 artikuluan adierazitako kasuetako batean sartzen badira, agindu honetan eta bete beharreko gainerako arauetan aipatutako baldintzak edo betebeharrak betetzen ez badituzte edo dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez badituzte, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta laguntzak emateko ebazpenean ezarritakoari jarraituz.

Bederatzigarrena.– Betebeharrak.

Onuradunek, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 15. artikuluan bildutako betebeharrak betetzeaz gainera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 artikuluan adierazitakoa ere bete beharko dute (185/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko

2019ko azaroaren 11, astelehena

nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak arautzen dituena).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetako laguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa izatea Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko aurrekontu orokorretan, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egindako gastu-espedienteen aurreratutako izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioi sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikatu beharreko araudia.

Agindu honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako arau hauetan xedatutakoa bete beharko da: 185/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak arautzen dituena; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzako manuak, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 29a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2019ko azaroaren 11, astelehena

I. ERANSKINA

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAK ESTRATEGIKOTZAT ETA LEHENTASUNEZKOTZAT HARTUTAKO PROIEKTUEN ZERRENDA 2020KO EKITALDIRAKO

1.– Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileentzako laguntzak.

Iraupena: 4 urte.

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatutako tituluak	Destinoko zentroa
1	Populazio-talde espezifikoetan muturreko esfortzu metabolikoko egoerak modu optimoan errekuaratzeko eta/edo birsortzeko erreminta omikoetan oinarritutako doitasunezko elikadura	Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Farmaziako Gradua Biologiako Gradua Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	AZTI (Derio)
2	Elkarreragin trofikoak Bizkaiko Golkoan: ekosisteman oinarritutako arrantza-kudeaketarako inplikazioak	Itsas Zientzietako Gradua Biologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Geografiako Gradua Matematikako Gradua Kimikako Gradua Fisikako Gradua Ingeniaritza Kimikoko Gradua	AZTI (Pasaia)
3	Bakteriofagoetan oinarritutako biokontrolerako tresna bat diseinatzea	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Albaitaritzako Gradua	AZTI (Derio)
4	Kudeaketa-estrategia berritzaileen ebaluazioa, atunontzietako RFMOen egungo kudeaketa hobetzeko	Itsas Zientzietako Gradua Matematikako Gradua Biologiako Gradua	AZTI (Sukarrieta)
5	Munomoduladore berriak garatzea behi-aziendari eragiten dioten bakterio-gaixotasun nagusiak kontrolatzeko	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Farmaziako Gradua Albaitaritzako Gradua	NEIKER (Derio)
6	Agroekosistemek biodibertsitateari eta zerbitzu ekosistemikoei egiten dieten ekarpena	Biologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Mendi Ingeniaritzako Gradua Agronomiaren Ingeniaritza eta Zientziako Gradua	NEIKER (Derio)
7	Arcobacter, elikadura-transmisioan azaleratzen ari den patogenoa. Bere potentzial patogenikoa ezagutzeko ekarpenak geneen analisi funtzionalaren bidez	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua Medikuntzako Gradua	EHU/UPV (Araba)
8	Metodologia berriak garatzea eta ezartzea landare-elikagaietan pestizidak egoteak duen arrisku metatzaile eta sinergikoa ebaluatzeko	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua Kimikako Gradua Ingeniaritza Kimikoko Gradua	EHU/UPV (Araba)

2019ko azaroaren 11, astelehena

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatutako tituluak	Destinoko zentroa
9	Biopestiziden garapena iturri berriztagarrietatik abiatuta	Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Bioteknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Kimikako Gradua Ingeniaritza Kimikoko Gradua Agronomiaren Ingeniaritza eta Zientziako Gradua	EHU/UPV (Gipuzkoa)
10	Mugilidoak EAEn kalitate handiko produktuen akuikulturarako alternatiba jasangarri gisa: hazkundera, animalien ongizatea eta elikagaien kalitatea/segurtasuna	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Itsas Zientzietako Gradua Kimikako Gradua Ingeniaritza Kimikoko Gradua	EHU/UPV (Bizkaia)
11	Liho-zuntzen aprobetxamendua, biokonpositeen indargarri eta nanozelulosa-iturri gisa	Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Bioteknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Kimikako Gradua Ingeniaritza Kimikoko Gradua Agronomiaren Ingeniaritza eta Zientziako Gradua	EHU/UPV (Gipuzkoa)
12	Okintzako produktuak diseinatzea eta garatzea, nekazaritzako elikagaien industrian sortutako koproduktuetatik abiatuta	Gastronomiako eta Sukaldaritza Arteetako Gradua Nekazaritzako elikagaien prozesuen eta produktuen berrikuntzako Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	Basque Culinary Center (Donostia)

2.– Teknologoak prestatzeko laguntzak.

Iraupena: 2 urte.

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatutako tituluak	Destinoko zentroa
1	Disfagiara bideratutako produktueta ebaluazio-metodo berriak aplikatzea: irensketa-eredua eta propietate erreologikoak	Farmaziako Gradua Albaitaritzako Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Biologiako Gradua Kimikako Gradua Ingeniaritza Kimikoko Gradua Gastronomiako eta Sukaldaritza Arteetako Gradua	AZTI (Derio)
2	Elikaduraren sektorean ekonomia zirkularrean oinarritutako negozio-eredu berriak garatzea: merkatu-azterketak eta ebaluazio ekonomiko-finantzarioak	Ekonomiako Gradua Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua Negozioen Kudeaketako Gradua Marketin eta Merkaturaren Ikerketako Gradua Industria Ingeniaritzako Gradua Ingeniaritza Kimikoko Gradua Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	AZTI (Derio)
3	Espezie produktiboetan antibiotikoen erabilera arrazionalizatzea	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Farmaziako Gradua Albaitaritzako Gradua	NEIKER (Derio)
4	Punta-puntako teknologiak ezartzea berotegi azpiko laboreetan	Agronomiaren Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Farmaziako Gradua Biokimikako Gradua Bioteknologiako Gradua Biologiako Gradua	NEIKER (Derio)
5	Kontrol ofizialaren mende dauden berrogeialdiko patogeno europarrak aztertze teknikak egiaztatze sistema abian jartzea	Agronomiaren Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Farmaziako Gradua Biokimikako Gradua Bioteknologiako Gradua Biologiako Gradua	NEIKER (Arkaute)

2019ko azaroaren 11, astelehena

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatutako tituluak	Destinoko zentroa
6	Animalien elikadura, produktuen jasangarritasuna eta kalitatea hobetzera bideratutako berrikuntza oinarri hartuta	Agronomiaren Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Biologiako Gradua Albaitaritzako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua	NEIKER (Arkaute)
7	Laborantza estentsiboetan fitosanitarioen erabilera murriztea	Agronomiaren Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Farmaziako Gradua Biokimikako Gradua Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua	NEIKER (Arkaute)
8	Omega-3 lipidoetan aberastutako gehigarriak eta elikagaiak. Oxidazio-egonkortasuna, portaera digestioan eta segurtasunean	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	EHU/UPV (Araba)
9	Ekonomia zirkularra glutenik gabeko produktuetan: tokiko landare-azpiproduktuak sartzea balio osasungarri erantsia izanik ogia egiteko balioko duten masen diseinuan	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	EHU/UPV (Araba)
10	Elikagai berrien diseinua eta Garapena	Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua Gastronomiako eta Sukaldaritza Arteetako Gradua Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	LEARTIKER (Markina)



II. ERANSKINA

QR: 10291#05

Eskabidea

Nekazaritza, arrantza eta elikadurako euskal sektorearen arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko laguntzak

Instrukzio-organo hartzailea:

ELIKAGAIEN KALITATE ETA INDUSTRIAKO ZUZENDARITZA

Eskatzailearen datuak.

Identifikazio-dokumentua *:

Zenbakia:

* Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua:

Honen izenean ari da.

Pertsona/entitate interesdun gisa espedientean: Ordezkaria:

Pertsona/entitate ordezkatuaren datuak:

Identifikazio-dokumentua:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

2019ko azaroaren 11, astelehena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sexua:

Ordezkaritza hau eskabide honetarako erabiliko da, eta ez da gordeko Ordezkarien erregistroan.

*** Telefonoa:****Faxa:***** Emaila:****Jaiotze datuak.****Jaioteguna *:***** Jaioterria:***** Probintzia:****Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia.***** Zenbakia:****Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Tramitazioan zehar administrazioak bidaliko dizkizun jakinarazpenak Ordezkarien Erregistroan altan emanda dagoen ordezkariari igorriko zaizkio. Ordezkariarik ez badaukazu, honi:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *.

Gaur egun posta-datuak dituzu. Hemendik aurrera, zure kontuaren datuak elektroniko bidez aldatuko dira.

Nahiz eta zure kontuan posta-datuak izan, jakinarazpena modu elektronikoan bidaliko dizugu.

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko kanala aukera dezakezu.

Elektronikoa: [Nirekarpeta](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, [identifikazioelektronikorakobitarteko](#) bat beharrezkoa da.

Postala: atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.

Helbidea.

Espainia.

Posta kodea:



Lurralde historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia:

Udalerrria:

Herria:

Helbidea:

Zk:

Sol.:

Letra:

Beste herrialde bat.

Herrialdea:

Probintzia:

Hiria:

Helbidea:

Posta Kodea:

Kanal elektronikoaren gaineko oharra Jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat emango da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak.

Nire karpetan jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

* **Posta elektronikoa:**

Telefono mugikorra:

Komunikazio hizkuntza *

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Euskara Gaztelania

Datuak erabiltzeko baimena.

Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.

Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

Zein lurraldetan daude eskatzailearen datu fiskalak.**Lurralde Historikoa *:****Proiektuak.****Ordena 1 *:****Ordena 2:****Ordena 3:****Titulazioak.**

Titulazioa	Zein zentrotan lortu den	Noiz lortu den

Erantzukizunpeko adierazpenak.

Aitortzen dut eskatzaileak ondoko hauek betetzen dituela:

Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.

Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako bat duela.

Zehaztu zer debeku mota duen:

2019ko azaroaren 11, astelehena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Konpromisoa hartzen du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazteko laguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen diren baldintzetako bati eragiten dion egoeretan izandako edozein aldaketa, bai eta edozein administrazioren edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

Beste laguntzei dagokienez.

Eskaera aurkeztu du edo/eta data eguna arte kontzeptu honengatiko dirulaguntzak jaso ditu ondoren agertzen diren erakunde publiko edo pribatu aldetik. Honetaz gain, konpromisoa hartzen du jasoko dituen dirulaguntzen berri emateko:

Beste dirulaguntza batzuk.

Eskaera data	Erakundea	Programa	Egoera	Eskatutakoa (eur.)	Emandakoa (eur.)

Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa.

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio Bekak, Laguntzak eta Dirulaguntzak.

- **Arduraduna:** ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza.
- **Helburua:** dirulaguntzen eta laguntza publikoen kudeaketa.
- **Legitimazioa:** tratamenduaren erakunde arduradunari emandako beharrezko tratamendua interes publikoaren izenean edo esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Dirulaguntzei buruzko Legea).
- **Hartzaileak:** datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala behartu ezean.
- **Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

<https://www.euskadi.eus/dbao/1029105>

Honen arabera beteta:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>). 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (https://www.boe.es/b_oe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf).

2019ko azaroaren 11, astelehena



Gehitu nahi den dokumentua:	Erantsitako dokumentua:
Ikasketen ziurtagiria.	
Curriculum Vitae.	
Alegatutako merezimenduen egiaztagiriak eta/edo ziurtagiriak.	
Laguntza proiektuaren aukeraketa justifikatzen duen memoria.	
Erroldatze-ziurtagiria.	

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honetako organo instrukzio-egileak datu hauek konprobatuko ditu eskumena duen administrazioan:

Organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzea

Nortasun-datuak (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia).

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia (GSDN)).

Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (EAEko Foru-aldundiak eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia).

Espresuki aurka egiten diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Kontrakotasun espresua agertu baduzu, prozeduran eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.

Laguntzak behar bezala esleitzeko, adierazitako datuak erkatu eta beharrezko direnak egiaztatu ahal izango ditu Administrazio publikoak.

_____ (e)n , _____ (e)an

(Tokia)

(Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)



ESKABIDEA OSATZEKO ARGIBIDEAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK.

Zure izenean ari bazara:

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu titularrari dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona edo entitate baten ordezkaria bazara:

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu ordezkatzan duzun pertsonari dagozkion datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Erakundeak ordezkari bidez aritzen dira beti.

Identifikazio-dokumentua.

Zehaztu dokumentu-mota: NAN, IFK, AIZ, pasaportearen edo bestelakoren bat.

KOMUNIKAZIO ETA JAKINARAZPENETARAKO KANALA.

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

- *Posta bidezkoa*: atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.
- *Elektronikoa*: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, onartutako ziurtagiri elektronikoa bat izan behar duzu.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzan ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

ABISUAK JASOTZEKO DATUAK (JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOETARAKO BAKARRIK).

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoa jasotzea aukeratu baduzu, helbide elektronikoa eta SMS bidezko abisu-sistema erabil dezakezu. Abisu bat jasoko duzu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez (:).

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK.

Eskatzaileak aitortzen du, bere erantzukizunpean, adierazpen hauetan azaltzen diren datuak benetakoak direla.

Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake datuak zehatzak ez badira, zerbait nahita esan gabe geratu bada edo faltsuak badira. Horrek ez du eragotziko izan daitezkeen bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboek aurrera egitea.

Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean. (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera).

Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, arauz zehaztu bezala. (1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatu ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak).

AURRETIK AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK.

Nahitaezko datuak dira: dokumentuaren izena eta zein erakundetan entregatu zen.